

JACQUES ISIDORE ETCHEVERRY UNANUE

(1921-XII-16) – (2008-III-22)

Piarres Xarritton Zabaltzagarai

ETXEKOAK ETA HAURTZAROA

Jacques Isidore Etcheverry Unanue Lapurdiko Donibane Lohizunen sortu zen, 1921-eko abenduaren 16an, aita Jean Baptiste Etcheverry Bidartetik zetorrela eta ama Dominika Unanue berriz Gipuzkoa Andoaineko etorkitik beste Gipuzkoar asko bezala lapurtar lagunarekin Donibanen ezkondua . Bost seme eta bi alaba izan zituen Etcheverry Unanue familiak eta Jakes bigarren semea zen, baina badakigu gure laguna 2008ko martxoaren 22an hil zitzaigula Baionako ospitalean eta Donibaneko elizan egin genizkiola ehortzetak hilabete bereko 26an.

Nola bera joan baino lehen zenduak baitziren bi burasoak eta hiru anaia, orain gelditzen zaizkigu anaia gazteena Ernest Etcheverry Senperen dagoena eta bi arrebak, Aline Etcheverry Iturria batekin Donibanen berean familiatua eta Marguerite Etcheverry, ezkongabea eta 7 haurridetarik gazteena.

Xehetasun hauek oro Etcheverry bi ahizpen ganik ditudala bildu ez dut erraite beharrik, nahiz Donibane Lohizune eta Hazparne eta Bidaxune, Landesetako Peirohaderaino 1914-18ko gerla aitzin ezartzen hasia zuten trenbideari uko egina zioten ere « Azken Gerla Handi » hura irabazia omen zuten gure buruzagiek, Jakesek eta nihonek gaztedanik aski ongi elkar ezagutu genuen. 1935-1940eko urteetan.

GAZTAROA SORTERRIAN

Ustegabeko bigarren mundu gerlaren bezperetan, Lapurdi leihorreko Donibandar eta barnealdeko Hazpandar mutil gazte askok bat egiten zuten elkarretarik biderditan, Uztaritzeko gaintto batean eraiki berria zen San Frantzes Xabieerrekoa deitu seminario ttipian. Jakizue bada hango buruzagi gozo Garat kalonjea lauzkatzen zuten hogeit hamar irakasle zein bereizien artean ikasle bakoitzak hauta zezakeela bere gogokoa. Ez zuten ez funts handirik gutarteko gatazkek, gure ustez elkarren bete baitziren, bai kiroletan, bai elizkizunetan, bai politikan Etcheverry, Diharce , Mourguy, Solaberrieta Donibandarrak eta Carçabal, Challet, Charritton, Duhour, Hazpandarrak.

Laster ordea Uztaritzetik ozen izan genituen Iruneko, Durangoko, Gernikako edo Bilbaoko gerla hotsak eta gure irakasleen artean sendi genituen alderdikeriak. Ez zituzten alabaina aburu berak Uztaritzeko buruzagi ohi Clément Mathieu apezpikuaren ildotik zebiltzan Pierre Lafitte eta Etienne Salaberry gure irakaslek alde batetik eta « Le Figaro » edo « Je suis partout » egunero hartzen zuten Bisquey eta Dourisboure jaun apaizek bestetik. Baina Espainiako gerla bururatu orduko, hasi zen Frantziakoa eta gure irakasle zenbait ere ikusi genituen berak nahi ala ez gerlari bihurtzen. Eta, harrigarriago oraino, Hegoaldeko ihesliarren ondotik, aste guti barne, Iparraldeko euskaldunek ikusi genituen Belgikako eta Frantziako gudaloste « ezingaraituen ! » hondakin herrestak Pirinioetaraino heltzen eta berdin, Alemanak jin aitzin Donibane Lohizuneko portutik Londresera urruntzen Poloniarren azken itsasontziarekin

Gogoratzen zait, hain zuzen, Jakesek eta nihonek eta Uztaritzeko lagunak, batxilergoaren bigarren mailaren probak Baionako lizeoan gainditu genituela, 1940ean, ekainaren 18ko egun historikoan.

Dena dela, Uztaritzeko seminariotik lekora eta ondoko udazkenean berean, gutarteko ikaskide anitzen bideak elkarretarik urundu ziren :lagun gehienak Baionako Seminario Nagusira sartu ginen, bi urtez Filosofia ikasketak egiteko, nahiz gure bizitegiaren erdian soldadu alemanak bizikide izan. Jakes Etcheverry aldiz irakaslegoari lotu zitzaion Donibane sorterriko Santa Maria ikastegian.

1943ko abuztuan ordea, adineko herritar zenbait bezala gure Donibandar laguna ere Bordeleko alderat deitua izan zen sei zazpi hilabetez Akitaniako « sasipetarren » aurka burdinbide zaingoa armarik gabe egitera eta gero Frantziako gerla bururatu arte, sorterriko irakaslegoara itzuli zen berriz.

Amerikanoek eta Errusoen amore emanerazi zitelarik Alemani eta Japoniarrei, hots 1945eko udaminean, Frantzesek uste baitzuten berreskuratuko zutela, Asian edo Afrikan galdua zuten inperioa, de Gaulle jeneralaren gobernuak dei egin zion Frantziako gazteriarri. Jacques Etcheverryk ere etxetik urundu behar izan zuen eta Bordelen, Anguleman, Ipar Afrikako Oranen gaindi ibili zen, sei hilabeteko soldaduzka bete arte. Eta azkenean, 1946etik 1948ko ikasturteraino, San Bernateko Salletarren ikastegian Baionan zeraman irakaslegoa utzirik, Hegoaldeko ala Iparraldeko gazte anitzek bezala hartu zuen Pariseko trenbidea.

PARISEKO URTEAK (1948-1962)

Gure adiskide lapurtarrak bere 26-27 urteekin, Sorbonara buruz jo zuen lehenik, filosofiako, psikologiako eta soziologiako azterketen prestatzeko xedetan eta 1955ean lizentzia horiek ardietsi zituen.

Baina nihonek ere bizpalau urte geroago, Baionako Seminariotik landa Erroman teologia puska bat eginik, eta Hazparnen eta Maulen irakaslegoa dastaturik

Pierre Narbaitz kalonjeak eskainirik, Jakesek lehenago hartu bide bera egin nuen eta 1953eko ikasturtean Sorbona barneko eta auzoko geletan ala liburutegietan nenginen. Filosofia, psikologia edo soziologia irakasle bertsuak entzun nituen eta azterketak ere arabera iragan eta tartetik ene euskal herriko herritar gazte ala zaharrek edo herritarrentzat ene bizibide luzean hiru bider Parisen bi urteko egonaldiak eginagatik, zergatik ez aitor bada Jakesek eta nik ez dugula behinere Parisen elkar topatu.

Ez gara ordea hemen Piarresen itzulinguruez behar ari, Jakesez baizik. Eta badakit Pariseko erdi erdian eta Matignoneko harresien bestaldean aurkitzen den sortuz geroz hainbeste Iparraldeko misiolarien aterpe izana zen eta oraino gaurregun aita Etxarren Irulegiko seme buruzagia duen Pariseko Misiolarien etxean ibilia zela Jakes Etcheverry eta nik baino lehen ezagutu zuela han berean Albert Chabagno gu bien ikaskide zenaren osaba apaiz misionista eta haren inguramenean zebiltzan Pariseko euskaltzale eta euskal ikasle asko ere aurkitu.

Erran behar dut ere aita Piarres Lafitte gure ezinahantzizko irakasle zenaren gutundegi osoa Piarres Andiazabal kalonjeak ximenki zaindua duena gaur arte, digitalizatu berri duelarik Euskaltzaindiak eskuratu dutala 1951eko martxoaren 21 ean Baionako HERRIA astekariaren Zuzendariari, hots, Pierre Lafitte jaunari, Jacques Lafitte karrikako bulegora igorri zion 4 orrialdeko gutun bat I. Etcheberryk sinatua Parise V.eko Quatrefages karrikako 4.eko bulegoa. 1951ko gutun mamitsu horrek ordea argi bat piztu du ene memorian, Lafittek oraino lehen bezala Lukianos deitu idazle zorrotzaren « bizilagun izanik hilak direnen elkarrizketari» berriz lotu behar bagenu bezala. « Galdegaia » orduan frantzez Le « terme requis » deitzen genuena ez ote genuen hori baizik eskas, Jakes eta Piarres bi ikaskide ohiek, elkar hatzemaiteko ?

Bospasei urte barne Pariseko Hiriburuan sartu ginen bi lagunek bi mundu ezberdinetan erortzeko zortea izan genuen, batek ez besteak ez genuen sorterrira ukatu ez eta gure irakaslek gaztaroan grekoz latinez ala euskaraz erakatsi filosofiaren ondorioak ateratzen saiatu ginen : hau da « Primum vivere deinde philosophare », *Bizi doia lehen, Filosofoa ondotik* latinetik ikasia Bécas Ainhoar apez bertsulariak hain polliki itzulia Martin Koxeren kantuan :

Martin Koxek ez ditu eskolak kurrirtu ;

Hala ere badaki zer den appetitu;

Haren filosofiak hiru puntu ditu :

Ongi jan, ongi edan, ase-ta gelditu.

Gaur konturatzen naiz Jakes adiskidea filosofia horrek berak bere 1951eko gutun hartan erraiten diolarik bere Irakasle maite ohiari nola bere ixtudiant lagunekin konturatu diren bazter guztietarik Pariseratzen diren ixtudiantak biriketako gaitzak jotzen dituela adin bereko beste gazte mota guztiak baino gehiago; hor daude zenbakiak lekuko. Gaitz berak jotzen ditu berdin Euskal Herrietako ixtudiantek. “Herria” astekariak jakinen du beraz euskal ixtudianten elkarte berezi bat sortu behar litekeela. Bestalde Arcachonen eginen da ondoko hilabetetan Frantzia Guziko Ixtudianten Mutuelaren Biltzar Nagusia, gero Legebiltzarrak Klase Apaletako seme-alaben eskolatzeko dirulaguntzak aitzina ditzan.

Horra beraz nolaz eta zertako Jakes Etcheverry bilakatu zen Mutuelle Nationale des Etudiants de France, M.N.F. erakunde garrantzitsuaren Buru orde 1952 an eta Burulehen gero 1955eraino.

Sail beretik Parise Hiriko Gazteriaren eta Kirolarien Zuzendaritzaren Aholkulari izendatu zuten orduan Jakes Etcheverry eta, nahiz bazuen bestalde Frantziako hiri nagusian, Euskal Herriaz edo Euskarazko ikastaldiez zer egin, bizkitartean, 1962 ko abenduan hartu zuen Euskal Herrira itzultzeko xedea.

BAIONAKO LANTEGIAK (1962-1993)

Baionara itzuli orduko aurkitu zuen Komertzio ganberan bere lantegia, etxe hortako aldizkariaren arduradun bezala eta 7 urtez, hau da 1962tik 1969ko abendu arte hilero agertarazi zuen *Activités en Pays Basque* deitu frantsezko aldizkaria. So bat eginez geroz konturatzen zara urte haietan susperraldi bat egin duela Lapurdi leihorraldeko ekonomiak orduantxe baitira estrenatzen ez bakarrik Biarritze Parmako aireportua eta inguruko lantegiak. Komunikazio gizon gisa altxatu berri diren mugaren bi aldeetako Irrati Telebistetan entzun daitezke Jakes Etcheverryren euskarazko kronikak eta HERRIA, GURE HERRIA edo BASQUE ECLAIR elebidun egunkarian zabaltzen dira gure adiskidearen artikuluak.

1965eko azaroaren 24ean Euskaltzaindia ohartu baita badukeela Etcheverry bezalako lankide suhar baten laguntzaren beharra, eskaintzen dio berari urgazleen zerrendan sartzea. Ez baita geroztik karguaren gatik loakartzekoa.

1968ko maiatzaren karietara, Frantziako irakaskuntzaren legeak ere apur bat malgutzero doazelakoan naski, Baionako Erakustokian Euskarazko ikasgaiak eskaintzen hasia den Pariseko euskal irakasle ohiak hasiko ditu Baionako Lizeoan Frantziako Administrazioak ordaindurik Euskal Eskolak batxilergoaraino emanen dituen Iparraldeko lehen irakaslea.

Lan bera egingen du Jakesek « Villa Pia » izena duen Baionako Lizeo pribatuan, eta arratsez errepikatuko, ikasle helduentzat Erakustokian. Etxe honetako liburutegian utzi ditu azkenean bere paper eta liburu guztiak irakaskuntzatik erretiratzean 1987an.

Bainan geroztik, Harambillet deitzen den Baionako Zaharretxean sartuz geroz 1993an, ez du igande bat huts egin Donibane Lohizuneko haurrideen eta iloben etxeko itzulia egin gabe.

Ikus arte Jakes ! eta hire argazkirik ez baitiguk nahi izan gure lerro hauen airestatzeko gisan haizu izanen ahal zaiok hire adiskide Jose Luis Lizundiari Donostiako Gordailu editoreak lehen Euskal Herri osoko Ikastolentzat prestatu zuen esku liburu sortari edekitzea hirekin egina zuen 5. liburuari *Lapurdi Itsas-hegia*-ren itxura.

Donostian, 2009ko otsailaren 27an